

Nik,Iñaki Azurmendi Iriondo, NA duenak, eta Lezamako
an bizi denak, alegazio batzuk egin nahi dizkiot Bilbo Metropolitarrerako
eremu funtzionalaren Lurralde-Plan Partzialeko hasierako onarpenaren dokumentuari,
eta hala jasoa izan dadila eskatzen dut.

Aipatutako dokumentuan proposatu dira Izaera Estrategikoko 4 eremu Jarduera
Ekonomikoak garatzeko: Bilboko itsasadarra, Meatzaldea, Etxebarri-Basauri-Galdakao
eta Txorierriko berrikuntza ardatza.

Azken horretan proposamenak egiten dira Zamudio-Derio-Sondika-Loiu-
Erandio-Leioa udalerrietan. Horren arabera zonalde horietan bultzatu behar diren
Jarduera Ekonomikoek lagunduko dute arazo eta desoreka batzuk konpontzen.

Kontuan hartuta momentu honetan jadanik martxan dagoen Jarduera
Ekonomiko horrek duen ingurumen inpaktua eta lur-zoruaren okupazio – Zamudion
284 ha, Derion 178 ha, Loiu 177 ha, Erandion 205 ha...- ez du ematen nekazal lurak
kolonizatzea irtenbiderik egokiena, are gehiago Balio Estrategiko Handiko nekazal
lurak direnean.

Bilboko Area Funtzionalaren arazo handienetako bat da lur-zoruaren
artifizializazio neurrigabe eta geldiezina. Uste dut, dokumentuan aipatzen den bezala,
politika egokiena dela aurretik artifiziailizatutako lur-sailak erabiltzea eta Balio
Estrategiko Handiko nekazal lurak errespetatzea, kontserbatzea, handitzea..., eta ez
artifizializatzea metro bakar bat gehiago.

Planteamendu teorikoak norabide horretan badoaz, ea planeamendu praktikoek
norabide berean doazen.

Lezamako kasuan, udal gobernuak behin eta berriro proposatu du poligono
industrialak handitzea, Zamudioko mugan –Kurtzean - eta Larrabetzuko mugan,
Ugarden, jakinda horretarako erabiliko diren lurak Balio Estrategiko Handiko Nekazal
Lurak direla. Bere jarrera beti izan da desarrollista, lur-zoruaren artifiziailizazioaren
aldekkoa, kasurik egin gabe Txorierri Jarduera Industrialak eragiten dituen ingurumen
inpaktuak, desorekak eta gehiegizko okupazioa. Nahita ahazten du zein den
Txorierriko egoera.

Lezama bera ez dago ingurumen inpaktoetatik libre: autobien trafikoa eta
zarata, hegazkinena, Silicatos de Malpicaren zarata eta 50.000 tn CO2 isurketak... eta
zabortegiaren proiektua -400.000 m² eta 4 miloi m³ ko kapazitatea. Azken hori ez da
LPP-n jasotzen, baina argi dago bere helburuetako bat bete-betean dagoela lotuta
Eremu Funtzionalaren zaborren kudeaketarekin.